

# UNAMUNO ALA LOROÑO. NOR OTE DA LENAGO?

Beñora ezkeriokan geintzue-  
nok izango zerate jakiniaren ga-  
ñean, igesko urtearen azkenalde-  
ra, Bilboko udaletxean erabaki  
zala Unamuno zanari oroitzape-  
nezko monumentu bat egitea. Or-  
tarako Brigadas de Navarra-ko  
plaza aukeratu omen zan, eta or-  
tafik sortu zan ezta-baida. Errez  
konprenitzekoa da Unamuno ba-  
tentzat plaza ura etzala toki ego-  
kia, otorduan tarta sardin-errie-  
kin naasturik jartzea bezelakoa li-  
tzake. Erihioz, politikaz ta kon-  
dairaren begirapenez alkarrin-  
gandik erabat urrutit dabilzanak  
bai ditugu.

Baña, naspilla edo iskanbilla  
ortatik etorri zan Unamuno-ren  
aurkako jardugizuna. Gorrotoa  
lege zalarik, udaletxearen asmu  
ona hota zan. Egun batzuetara,  
*La Gaceta del Norte*-k redazio  
oarrean ekarren, ez Brigadas de  
Navarra-ren plazan eta ez Bilbo-  
ko inñun bazterretan etzuala me-  
rezi Unamuno-k bere oroitzape-  
nik. Orduan, bertanbera gelditu  
ziran gauzak. Pilatos-en anzian  
bezeza eskuak garbitu zituzten.  
Ta, agiri danez, Euskalerrriak se-

kula-sekuletan mundura eman  
duen pentsalaririk aundienak ez  
omen du monumentu koxkor bat  
ere merezi.

Nik neronek, ba det itxaropena  
oraindik egingo zaiona. Madrid-  
go *Indice*, apirilko zenbakian,  
arriturik mintzaten da gertaera  
oni buruz. Euskotarrok ere, noiz-  
gait, zibilizazioak zentzun bar-  
nean sartuko gaitu, ta orduan  
gingo zaio gorazarrea —anai ar-  
teko tiki-miki zelbeak utziak—  
gure erriak mundura eman duan  
gizonik aundienetakoa dan (men-  
de ontako aundiena noski) Un-  
amuno pentsalariari.

Au ezta guztia: Orain, Galda-  
kano-ko ziklista bazkun bat ari  
da lanean Loroño-ni monumentu  
bat egiteko. Loroño-ren izenean  
joango omen da, baña izan txi-  
rrindulari sportaren irudiz izango  
omen da. Ta, jakina, ez du ino-  
lazko eragozpenik.

Ez Loroño-ren aurka nagolako  
ta ezta gutxiagorik ere, baña  
Unamuno zanak merezi etzuna,  
nola liteke Loroño danak merezi-  
tzea? Paradoja onek, Unamuno-  
ren paradojak txikitat utzi ditu.

Jakitun bati ukatua oraindik bi-  
zidan sportman bati eman. Bapo.  
Ta gu lasai. Ba dirudi ainbeste  
makurkeri ikusi bearrak zeoro  
mututu gaituala. Orrenbesteraño  
auldu ote da errazioaren eta zu-  
zenbidearen indarra? Beldurrak  
ala nagikeriak menderaturik bizi  
al gera? Nun da gizonaren zen-  
tzuna? Emea ere alperrik atera-  
ko litzake Diojenes farolakin.

Orraitiki, zorionez, euskeltza-  
leon artean Unamuno-ganako izo-  
tza etenaz dijoo. Ontaz, Inñuri-  
tzaren *Unamuno ta abendats*-ek  
lan bikaña egindu lengo otzaldi  
aren kontra. Lastima liburu au  
zabalduago ez egotea.

Unamuno, gure etsaitzat askok  
jo dute; batez ere, bere *La cues-  
tión del vasquense* gaitik. Baña,  
ez errazoi justuz. Jakina berak  
esandako guztiak egiak ez tirana,  
baña bere buruak ondo pagatu  
du pekatu ofi. Ta Isidoro de Fa-  
goaga-k orain urte batzuek idatzi  
zuana da egia: «El espíritu au-  
ténticamente vasco de Unamuno  
permanece inalterable, a pesar  
de esa actitud contra el vasquen-  
ce».

Erihio kontuan, bere kezka ta  
zalaniza Kristo-ren inguruan da-  
bil, ta ezer erabagitzen ez badu  
ere, irakurtzen duen guzieri em-  
aten die zer pentsa; ta sinimen-  
dunak uxatu baño, sinisogorak  
geiago urreratzen ditu kristautas-  
unera.

Mundu guziak goratzen du gu-  
re filosofo ospetsua. Berriz, mun-  
duko kulturari ezta aintzat artzen  
sportmanik. Kirolak aurren jolas  
bezelatsu dira, gizonaren txolar-  
te utsunea betetzen dute. Asko-  
rentzat, ta geienentzat noski, jo-  
las bearezkoa da gorputz ta bu-  
ruaren eguneroko neke berdiña-  
ren ordaingarri. Baña ez espek-  
takulo bezela, bakoitzak bere era-  
ra edo aukerara egiteko babilik.

# IKUSKETAK

EXODO. — Azkenik etorri zi-  
tzaigun ainbeste aipaturako zi-  
nta au. Jakina, novelatik peliku-  
lara askotxo galduta iritxi da.  
Ezin diteke bada lortu-arazi bei-  
ñere gaya idazti bategik ba da-  
tor. Juduen goraberak bigarren  
guda bukatu zanetik agertzen  
dizkigu, margo eder bizian erabi-  
llita Otto Preminger zuzendariak.  
Atrixku aundi bat dute ala ate-  
ratzen diran zintak; iraupen lu-  
zea dutela. Iru ordu terdi inguru  
irauten du, ta denbora ortako  
exeri-aldiak garrantzi aundikoa  
bear du izan ikuslearen interesa  
erozi ez dedin.

Alataz ere, trebetasun guztia-  
kin egiña dago. Chipre eta Is-  
rael'go lurraldeak agertzen zaiz-  
kigu dotoretasun aundiz eta ez du-  
te kontuan artu ze dirutza kosta  
zayoten. Ondotik jarraitu bear  
da juduen asmakizuna. Erri onen  
bidezkundea —éxodo— bere Pa-  
lestina'runtz, mundu guztien ajo-  
lea hategaiñ duela. Alemanak  
lenbizi, gero ingesak, ta azke-  
nik arabita'ren etsaikeriak,  
erriañ bertan ozka egiten diola-  
rik... Ain zalla izanik, bi alde-  
tatik gauzak diran bezela ikus-  
te, ezin esan genezake, arrazoi  
osoa anek edo beste ayek dutela.  
Pelikula onetan judu erria ager-  
tzen zaigu erru guzian opagai.  
Danok kontra dituala, bere ar-  
durapean gelditzen da soilki Is-  
rael erriaren askatasuna. Gauz  
batzuek ez dira ain errex uler-  
tzen. Juduak ludi guzian ainbes-  
teko eragintasura badaukate,  
nun izan zituzten laguntzalleak  
erria berpizteko? Ainbeste eta  
ainbeste, mixeriz mixeriz iritxi  
ziran bezela lurralde aietara, be-  
ñere ezagutu ezizuten Palestinara,  
prest iskilluak beren nes kubideak  
lortzeko?...

Pelikulak ba ditu goi-mallera-  
ño irixten diran atal bereziak.  
Bigarren zatiak aintasuna du ta  
garrantzizko egokerak ere badi-  
tu oso ondo lortuak: hotel orren

amiltze-zartadagarria eta ori lor-  
tu dutenen iges-aldi bikaina, in-  
glesak atzetik dituztela. Acre'ko  
indar-gaztelua, juduak erasotzea.

Naiz ta naiez iz gin bearre-  
ko «Exodo» filmak jende asko  
eramango du. Gañera problema  
bati buruz egiña dalako, asko-  
rentzat kezka garri izando da.

«Super-tecnicharama 70 mm.»  
ean erabilita dago: ers-ots, neu-  
rri-z gañeko bat laguntzalle dau-  
kala.

«Yanki» gixara era bat lan  
egina, Paul Newman'ek lenengo  
papera darama. Gizonki jokutzen  
du, egoki lortuaz bere egitekoa,  
Eva Marie Saint eta Peter Law-  
ford inguruan daukala.

EL ULTIMO TESTIGO.—Ez  
degu gauz askorik esan bearrik  
zinta onetaz. Alemana berez eta  
aleman gauzari dagokion eran,  
azun-xamarra. Gaya poliziaz-  
koa, aur baten ilketa inguruan  
igartzen da, eta nola ez!, emak-  
ume gizakoi baten bizi mundu  
latza irten bear, epaikunde bat  
sortu araziz. Wolfgang Staljote zu-  
zendariak, aukeratu gabe bear  
dan bezela, ez ta asmatzen bere  
notin-nabariekin. Zati batzuek la-  
burrak izan bearrean, luzatu  
egiten ditu, geyegizko goraberak  
agertuz.

PERRO GOLFO. — España-  
rra filma au. Eta ez def uste as-  
ko goratuko duenik espanar zi-  
nea. Edozein bultzagai ba dirudi  
naikoa dala zinta bat lortzeko.  
Eta bai ere edozein trebe dala  
lan bat eratu eta daekion bu-  
kaera bat emateko. Aurretzat  
egina bañan ez aurretzako go-  
zotasunarekin. Or ipintzen dute  
José Isbert yayo ta, segi, ia zer  
ateratzen dan. Pelikula txiroa,  
zakur bat bein edo bein agertuaz  
eta bizpauru izaki kendu ezker-  
o, zokoreri bete-betean igarotzen da.  
Gañera bere zuribelza kaxka-  
rrak motelagotzen du garrantzi  
gabe gaia.

TOLARETXIPI X.

## ARANZADI'tar J. M.

ERA GUZTIETAKO SEGUROAK

Barzelona'ko "LA CATALANA",  
Seguroetako ordezkaria Gipuzkoan

Bere gain artizen ditu seguro aukerak:  
Suak - Ez-bearrak - Besterekiko  
kalteak - Berebiñ - Bizi, eta abar.

San Marcial, 53 entlo. DONOSTIA'N Urrutizkiña 19296

ALE BAKARRA: 2'50 PEZTA

## "FUNCOR" S. C. I.

Benetako baserritarrak  
bear dituzten MAKINAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE  
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizuni'k onenak,  
emengo nekazarientzat.

Adi ta oroi ezazu.

## "FUNCOR"

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO

Vizcaya

## La Fanderia, S. A.



Eratu gabeko  
pentsoarekin



Fanderiko pensoarekin  
Ez Merkenak,  
Bai onenak!!!  
Apdo., 36 Tel. 56134  
RENTERIA

## «Seaska'n»

Aurten egingo al du Jaunartzea zure seme edo  
aiabaren bategi? «SEASKA'N» dituzu, orretarako  
jantzi egokiak: azpiko ta gañeko; bear dezun guztia  
antxe. Egiñak ala neurriz nai dezun bezela.

Emakumentzat ere badituzte bertan blusak,  
tergalazko gonak, mantillak, buruzapiak eta abar.

Alameda, 24. S. Jerónimo Isitziñan

Urrutizkiña 1-18-84

DONOSTIA'N

ZERUKO ARDIA FRANQUEO CONCERTADO N.º 37/21

D. JUAN ZULAICA  
Teologado de Aranzazu  
WATE